

GRADU AMAIERAKO LANA

HIZKERA INKLUSIBOA, EGUNGO ITZULTZAILEEN ERRONKA:

TESTUINGURU TEORIKOA ETA

EUSKARA-GAZTELANIAKO ITZULTZAILEEN JARDUNA

## LABURPENA

Gradu amaierako lan honek hizkera inklusiboa hartzen du ardatz, baina nire ikasketen muina den itzulpengintzaren ikuspuntutik begiratuta. Gaurkotasun handiko gaia da, eta adituen hausnarketa eta ikerketez gain, ugariak dira hizkera inklusiboa erabiltzeko gidak eta arauak. Itzulpengintzan duen eraginaz ere hausnartu eta idatzi izan da, baina uste dugu euskal itzulpengintzan gutxi aztertu dela gaia, eta hutsune hori betetzen lagundu nahi du, bere txikian, lan honek.

Lan honen xedeak hizkera inklusiboak duen garrantzia aztertzea, itzulpen arloan duen eragina ikusaraztea eta euskal itzulpenean duen tokia aztertzea dira.

Gaiaren alde teorikoak errepasatzeaz gain, landa lana ere egin nahi izan dugu, egungo itzultzaile eta itzultzailegaien gogoeta eta praktika aztertzeko, beraz, bi atal nagusi ditu lan honek, teorikoa eta praktikoa. Atal teorikoan, hizkera inklusiboa kontzeptuari eta horren erabilerari buruzko erreferentziak aztertu ditugu, nazioartekoak nahiz euskaldunak, eta arazo gehien planteatzen dituzten ezaugarriak aipatu ditugu. Horretaz gain, itzulpen jarduna orokorrean aztertu dugu, itzultzaileek xede testuan duten eragina ulertzeko, eta horrela, atal praktikoa bilduko ditugun datuak modu egokian interpretatzeko beharrezkoak diren kontzeptuak finkatzeko.

Atal praktikoa, euskal itzultzaileek gaiarekiko duten jarrera ezagutu nahian, zuzenean haien jarduna aztertzea erabaki dugu; zehazki, EHU<sup>n</sup> Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua euskaraz ikasten duten bigarren, hirugarren eta laugarren mailako ikasleena, horiek izango baitira hurrengo itzultzaile belaunaldiak, eta EIZIEko kide diren itzultzaile profesional batzuen. Bi ariketa praktikoa planteatu genizkien hizkera inklusiboa erabiltzeko joera duten egiaztatze, eta gaiaren inguruan duten iritzia ezagutzeko. Alde batetik, testu bat euskaratik gaztelaniara itzultzea eskatu genien, eta ondoren inkesta bati erantzutea. Jasotako emaitza guztiak aztertu eta alderatu ondoren, ondorio batzuk atera ditugu.

Ondorio orokor horiek azaldu ondoren, lanerako erabili ditugun erreferentzia bibliografikoen zerrenda agertzen da, eta atal praktikoa burutu ahal izateko erabili dugun materiala eskuragarri jarri dugu eranskin gisa; hain zuzen ere, EHUko ikasleei zein itzultzaile profesionaleri bidalitako itzulgaia eta bete beharreko inkesta.

## AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	5
2. METODOLOGIA .....	6
2.1 Atal teorikoa .....	6
2.2 Atal praktikoa .....	6
3. ATAL TEORIKOA .....	7
3.1 Izendapena .....	7
3.2 Nazioarteko erakundeen erreferentziak .....	8
3.2.1 Nazio Batuen Erakundea .....	8
3.2.1.1 UNESCO .....	9
3.2.1.2 NBE Emakumeak .....	10
3.2.2 Europako Parlamentua .....	11
3.3 Euskarazko erreferentziak .....	12
3.3.1 Emakunde .....	13
3.3.2 Euskal Herriko Unibertsitatea .....	14
3.4 Itzultzailearen paper sortzailea .....	15
3.5 Itzulpena eta feminismoa .....	17
3.5.1 Emakume itzultzaileak .....	18
3.5.2 Itzulgaien egiletza eta izaera .....	19
3.5.3 Itzultzeko modua .....	21
4. ATAL PRAKTIKOA .....	23
4.1 Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak .....	23
4.1.1 Ikasleen itzulpenen analisia .....	23
4.1.2 Ikasleen inkestaren analisia .....	25

4.2 Itzultzaile profesionalak.....	27
4.2.1 Itzultzaile profesionalen itzulpenen analisia.....	27
4.2.2 Itzultzaile profesionalen inkestaren analisia.....	28
4.3 Atal praktikoaren ondorioak.....	29
5. ONDORIOAK.....	30
6. BIBLIOGRAFIA.....	32
7. ERANSKINAK.....	35

## 1. SARRERA

«Hizkuntzaren bidez errealitatea izendatzen dugu» (Emakunde, 1998). Horregatik, ezinbestekoa da hizkerari erreparatzea; esaten dugunak eragin handia izango du imajinario sozialean, eta gainera, esateko moduak errealitatea modu batean edo bestean irudikatzeko balioko du. Hori kontuan hartuta, saihestezina da pentsatzea gure jendartea eta bizimoduak aldatu direnez, hizkuntza ere aldatu behar dela.

Horren harira, garrantzitsua da kontuan hartzea gure hautuek gure diskurtsoa baldintzatuko dutela, eta ez dela inoiz neutroa izango, baina bidezko diskurtso bat eraiki dezakegu, eta horretarako ezinbestekoa da hizkera inklusiboa kontuan hartzea.

Hizkera inklusiboa erabiltzea edo ez hautu ideologiko bat da, eta hiztun edo idazle bakoitzaren esku dago hizkeraren atzean ezkutatzen diren jarrera sexistak saihestea. Azken hamarkadetan hizkera inklusiboa lekua hartuz joan da eta egunerokoan geroz eta ohikoagoak bihurtu dira gizonen eta emakumeen berdintasuna bermatzen saiatzen diren diskurtsoak.

Itzulpengintzak, hizkuntzak dituenez langai, ezinbestean eragiten du errealitatearen irudikapenean, eta, aldi berean, kulturen arteko eta ez soilik hizkuntzen arteko jardunbidea denez, hizkuntzalaritzaz kanpoko elementuak hartu beharko ditu kontuan itzultzaileak, lan hizkuntzak edozein direla ere. Alabaina, hizkera inklusiboari gagozkiolarik, bereziki agerikoak dira auzi horiek generoa markatzen duten hizkuntzen eta markatzen ez dituzten hizkuntzen arteko itzulpenetan, eta hori da euskal itzultzaile gehienek kasua.

Gradu amaierako lan honek, beraz, hizkera inklusiboak duen garrantzia aztertzea, itzulpen jardunean duen eragina azalratzea eta euskal itzulpengintzan duen leku erreala aztertzea ditu helburu. Horretarako, bi atal ezberdinak ditugu: teorikoa eta praktikoa. Atal teorikoan, hizkera inklusiboa kontzeptua jorratzen duten nazioarteko nahiz Euskal Herriko iturriak aztertu ditugu, eta arazo ohikoenak aipatu ditugu. Horretaz gain, lan honek itzulpena duenez ardatz, itzulpen jarduna aztertu dugu, itzultzaileek testuan duten eragina ulertzeko, eta horrela, atal praktikoa ikusiko ditugun datuak ongi interpretatzeko. Atal praktikoa, euskal itzultzaileen jarrera eta iritzia aztertu nahi izan ditugu, eta horretarako bi ariketa praktikoa planteatu genizkien EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasleei eta EIZIEko itzultzaile profesional batzuei. Alde batetik, testu bat

euskaratik gaztelaniara itzultzea eskatu genien hizkera inklusiboa erabiltzeko joera duten egiaztatzeko, eta bestetik, gaiaren inguruko inkesta bat betetzea.

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu lan honen atal praktikoa aurrera eramatea posible egin duten ikasle eta itzultzaile guztiei.

Amaieran, lan hau aurrera eraman ahala ateratako ondorio batzuk adieraziko dira, eta ikerketarako beste bide batzuk irekiko dira.

## 2. METODOLOGIA

Gradu amaierako lan honek bi atal berezirik dituenez, teorikoa eta praktikoa, metodologia ezberdina erabili da batean eta bestean.

### 2.1 Atal teorikoa

Lan honen helburua euskal itzultzaileen jarduna eta hizkera inklusiboak euskal itzulpengintzan duen lekua eta erabilera erreala aztertzea denez, lehenik eta behin gutxieneko hurbilketa teoriko bat egin dugu kontzeptu horietara: itzulpengintza edo itzultzaileen jarduera, eta hizkera inklusiboa. Itzulpen jarduera aztertzeko, zuzenean itzultzaileek beraiek idatzitako iturrietara jo dugu, hala tesiak eta testu akademikoak, nola hedabideetan argitaratutako iritzi artikulak. Hizkera inklusiboa jorrazteko, nazioarteko nahiz bertako erakundeek argitaratutako testuak aztertu ditugu. Hortaz gain, hizkuntza ezberdinetan argitaratutako hizkera inklusiboa erabiltzeko gidak sakonki aztertu ditugu; batez ere, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitakoak, horiek baitira lanean zehar aztergai izango ditugun hizkuntzak. Lehen atal horretan, beraz, bildutako informazio horren laburpena aurkeztuko dugu, atal praktikorako funtsezkoak diren puntuetan arreta berezia jarritz.

### 2.2 Atal praktikoa

Hizkera inklusiboak euskal itzulpengintzan duen toki erreala aztertzeko asmoz, itzultzaile profesionalen eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasleez osatutako lagin txiki bat aukeratu dugu, eta bi atalez osatutako bi ariketa praktikoko planteatu zaizkie.<sup>1</sup>

Ariketa praktikokoaren lehen zatia testu bat euskaratik gaztelaniara itzultzea zen. Testu hori EHUko webgunean itzulpengintza eta interpretazioko ikasketen sarbide froga

---

<sup>1</sup> Ikus Eranskinak.

gauzatzeko eskuragarri dagoen informazio ataletik hartu genuen<sup>2</sup>, eta hainbat itzultzailei bidali genien. Genero gramatikalik gabeko hizkuntza batetik genero gramatikalak dituen hizkuntza batera itzultzeko prozesuan ohikoak diren arazoak planteatzen zituen aipatutako testuak; esaterako, «ikasleak» aipatzen zuen, gaztelaniaz «alumnas» edo «alumnos» izan daitekeena, edo «onartua», «aceptado» / «aceptada». Itzulgaia bidaltzerakoan ez genuen aipatu zein izango zen aztertuko genuen alderdia, emaitzak ez baldintzatzeko. Horren ondoren, orokorrean haien itzulpen jarduerari buruzko eta hizkera inklusiboari buruzko inkesta motz bat bidali genien, haien iritzia ezagutzeko asmoz. Erantzunak jaso ondoren, haien itzulpenak alderatu eta inkesten emaitzak aztertu genituen.

Ikasleei dagokienez, prozedimendua itzultzaile profesionalekin erabilitako berdina izan zen; hasteko, Itzulpengintza eta Interpretazioa euskaraz ikasten duten bigarren eta hirugarren mailakoei itzulpen berbera enkargatu genien<sup>3</sup>, eta ondoren, bigarren, hirugarren eta laugarren mailakoei inkesta bidali genien. Kasu honetan, inkesta ezberdina zen, ikasketei buruz ere galdetzen zitzaielako.

### 3. ATAL TEORIKOA

Lan honen atal teorikoan hainbat alderdi jorratuko ditugu. Alde batetik, hizkera inklusiboari buruzko testuak eta gidak aztertuko ditugu, nazioartekoak nahiz Euskal Herrikoak; bestalde, itzulpen jarduna orokorrean aztertuko dugu atal praktikoa garrantzia izango duten ezaugarrietan sakonduz, eta, azkenik, itzulpenaren eta feminismoaren arteko lotura jorratuko dugu, euskal itzultzaileei nola eragiten dien aztertzeko asmoz.

#### 3.1 Izendapena

Lan honen izenburuan «hizkera inklusiboa» agertzen bada ere, errealitate hori izendatzeko zenbait esamolde erabili izan dira historian zehar.

XIX. mendeko ikertzaile feministek *male as norm* printzipioa aipatu zuten lehen aldiz, patriarkatuak hizkuntzan zuen eragina erakusteko. Horren harira, asko izan dira patriarkatuaren eta hizkeraren arteko loturan atentzioa ipini dutenak, eta haien artean, izen

---

<sup>2</sup> Une honetan ez da EHUko webgunean agertzen COVID-19ren eraginez frogaren baldintzak aldatu direlako.

<sup>3</sup> 4. mailako ikasleei ez genien itzulpena eskatu bazekitelako zein gai ari ginen lantzen eta emaitzak baldintzaturik egon zitezkeelako.

garrantzitsuak aurkitzen dira, adibidez, Simone de Beauvoir. *Bigarren Sexua* lanean, adibidez, adierazten zuen gizonak «positibotzat eta neutraltzat» hartzearen ondorioz, emakumeak beti «bestea» zirela.

Hizkera jendarte sexista batek sortu duen heinean, horrek ere sexista izan behar du ezinbestean, eta beraz, hizkerak emakumeak betidanik ezkutatu edo gutxietsi ditu.

Egoera horren aurrean, XX. mendeko feministek hizkuntzan ere gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna lortzeari ekin zioten, eta sexismoa hizkuntzatik kanpo uzteko ahaleginak geroz eta ohikoagoak bihurtu ziren. Historian zehar, «hizkera ez-sexista» edo «hizkera neutroa» terminoak erabili izan dira<sup>4</sup>, baina azkenaldian «hizkera inklusiboa» terminoa nagusitu da, zabalagoa baita. Izan ere, feminismoaren helburua androzentrismotik eraikitako hizkera modu parekoagoan berregituratzea da. Euskaltzaindiaren hiztegiak honela definitzen du androzentrismoa: «munduari eta gizarte-harremanei gizonaren (eta ez gizon-emakumeen) ikuspuntutik begiratzea». Kontuan hartu behar da, halaber, «gizon» horrek, sarritan, ez diola gizon orori erreferentzia egiten, baizik eta desgaitasunik gabeko mendebaldeko gizon zuri, zisgenero, heterosexualei. Hau da, desgaitasunak dituzten pertsonak, emakumeak, zuriak ez direnak eta LGTBIQ komunitatekoak kanpo gelditzen dira, eta hizkera androzentrikoak ez die berdintasunik eskaintzen. Horregatik, «hizkera inklusiboaz» hitz egitea «hizkera ez-sexistaz» hitz egitea baino aproposagoa iruditzen zaigu, nahiz eta lan hau batez ere genero ikuspegitik enfokatuko den.

### 3.2 Nazioarteko erakundeen erreferentziak

Lehenik eta behin, nazioarteko erakundeek hizkera inklusiboari buruz zer iritziduten aztertuko dugu, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) bi azpiegituretan eta Europako Parlamentuan atentzioa jarritz.

#### 3.2.1 Nazio Batuen Erakundea

NBE 1945. urtean sortu zen, nazioarteko zuzenbidea, ordenua, garapen ekonomiko eta soziala eta giza eskubideak bermatzeko helburuarekin. Nazioarteko erakunderik handiena da, eta hainbat azpiegituretan banatzen da.

---

<sup>4</sup> Ikusi, adibidez, 4.2.2 atalean agertzen diren Europako Parlamentuaren gidak: *Informe sobre el lenguaje no sexista en el Parlamento Europeo* (2008); *Un lenguaje neutral en cuanto al género* (2018).



### 3.2.1.1 UNESCO

UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) NBEn azpiegituretako bat da, 1945. urtean sortua, eta izenak dioen bezala, hezkuntza, zientzia eta kultura sustatzeaz arduratzen da.

UNESCOren konstituzioaren lehenengo artikuluan azaltzen denez, «justiziaren, legearen, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetu unibertsala bermatuko da, arrazak, hizkuntzak edo erlijioak kontuan hartu gabe». Bestalde, UNESCOren Batzar Orokorrek egindako 24. bileran (1987) adostutakoaren arabera, «erakundearen dokumentu guztietan, posible den heinean, esplizituki nahiz inplizituki sexu bakar bati erreferentzia egiten dioten terminoak erabiltzea saihestuko da, emakumeen aldeko neurri positiboetan izan ezik». Bi urte beranduago, 1989an, 25. bilera egin zen, eta «emakumeei zehazki erreferentzia egiteko hiztegia erabiltzeko jarraibideak ematen eta Europar Batasuneko estatuetan sustatzen jarraitzea» adostu zen.

Hala, 1989an Batzarren, Hizkuntzen eta Dokumentu Bulegoaren itzulpen zerbitzuak eta Emakumearen Egoerari lotutako Ekintza Koordinatzaileak UNESCOn hizkera ez-sexista erabiltzeko aholku batzuk argitaratu zituzten frantsesez eta ingelesez: *Pour un langage non-sexiste* edo *Guidelines on non-sexist language*. Dokumentuak UNESCOn nahiz erakundetik kanpo izan zuen harrera positiboa kontuan hartuz, erakundearen hizkuntza ofizial guztietan argitaratzea erabaki zuten, eta 1999an *Recomendaciones para un uso no sexista del lenguaje* gida argitaratu zen.

Gida horren arabera, «hizkera ez da giza adimenaren sorkuntza arbitrario bat, baizik eta errealitatea ulertzeko dugun moduan eragina duen produktu sozial bat», eta horregatik defendatzen du hizkerak jendearen portaera eta errealitatea aldatu eta hobetu dezakeela. Gida horren helburua, beraz, gaztelaniaz idazteko edo gaztelaniara itzultzeko prozesuan «hizkuntza bortxatu gabe» hizkera inklusiboa erabiltzeko gomendioak ematea da.

Gidan zehar ezaugarri hauek jorratzen dira:

- Gaztelera, generoko hizkuntza: izenen eta adjektiboen generoa; konnotazio ezberdineko hitzak generoaren arabera.
- Maskulinoaren erabilera generikoa: singularrean nahiz pluralean; esaldiaren elementuen arteko komunztadura.

- Izenen, abizenen eta tratamenduen erabilera asimetrikoa.
- Tituluen eta lanbideen feminizazioa.

Urte berean argitaratutako frantseseko bertsoian, *Pour l'égalité des sexes dans le langage*, gaztelaniako bertsoian lantzen diren ezaugarriez gain, sexu estereotipoetan arreta berezia jartzen da, eta gainera, amaieran, ingelesetik ekarritako eta emakumeen egoera eta eskubideekin lotura duten hainbat terminoen definizioak txertatu dira.

### 3.2.1.2 NBE Emakumeak

2010. urtean NBE Emakumeak erakundea sortu zen NBEren azpiegitura gisa, genero berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko helburuarekin.

NBE Emakumeak hizkera inklusiboa erabiltzeko oinarritzko aholkuak eskaintzen ditu NBEen ofizial diren 6 hizkuntzetan, eta online eskuragarri dagoen «Gendertem» izeneko glosario eleanitza sortu du, non generoari buruzko 650 termino baino gehiago biltzen diren. Gainera, genero berdintasuna hizkuntzaren bitartez bultzatzeko gida argitaratu zuen gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez: *Guía para el uso de un lenguaje inclusivo al género, Guide de rédaction inclusive du genre* edo *Gender-inclusive language guidelines*.

Gidaren hasieran, genero sentsibilitatea duen hizkera erabiltzea genero berdintasuna bultzatzeko modu eraginkorra dela aipatzen da, hizkerak jarrera kultural eta sozialak osatzen dituelako. Gainera, esplizituki azaltzen da aldaketa soziopolitikoek eta kulturalak femeninoaren eta maskulinoaren erabilera simetrikoa eskatzen dutela.

Gaztelania eta frantsesa hizkuntza erromanikoak diren heinean, antzeko egitura eta erabilerak dituzte, eta ondorioz, hizkuntza horietan argitaratutako gidak nahiko antzekoak dira; ingelesekoarekin alderatuz gero, aldiz, badaude ezberdintasun gehiago.

Gaztelaniako eta frantseseko bertsoetan, maskulino generikoaren erabileran jartzen da arreta gehien, eta aipatzen da femeninoa adierazteko modua duten hizkuntzak diren heinean, ez dagoela arrazoirik femeninoa baztertzeko. Maskulino generikoa gainditzeko lau estrategia hauek eskaintzen dira:

- a) Generoari dagokionez neutroak diren hitzak: izen, adjektibo eta izenordain generikoak, kolektiboak eta epizenoak erabiltzea gomendatzen da. Adibidez, «c'est un grand pas pour l'homme» erabili beharrean, «c'est un grand pas pour l'humanité». Gainera, genero estereotipoak erakusten dituzten hitzak saihestea

aholkatzen da, adibidez, «las mujeres de la limpieza» beharrean, «el personal de limpieza».

- b) Esaldiak berregituratzea generoa aipatzea saihesteko helburuarekin. Adibidez, «vous êtes convoqués» esan beharrean, «nous vous convoquons» esan daiteke.
- c) Bikoteak: hitz femeninoak eta maskulinoak jarraian aipatzean datza, eta gainera, ordena aldatzea aholkatzen da. «La asociación de agricultores» beharrean, «la asociación de mujeres y hombres agricultores», edo, «les électeurs» beharrean, «les électeurs et électrices ».
- d) Zehar marrak: hitz bakarrean bi generoak aipatzeko balio du. Adibidez, «traductrices/-teurs» edo «director/a ».

Bi hizkuntzetan, lehenengo hiru estrategiak lehenesten dira eta zehar marrak salbuespenetarako bakarrik erabiltzea gomendatzen da, irakurgarritasuna oztopatzen dutelako. Adibidez, gutun baten hasieran edo idazteko leku gutxi dagoen formularioetan erabil daiteke.

Azkenik, aholku gehigarri batzuk ageri dira. Lehenik eta behin, emakumeen ahalduntzea erakusteko ahots aktiboa erabiltzea gomendatzen da pasiboaren ordean, eta, posible den heinean, genero nortasunarekin edo joera sexualarekin zerikusia duten rol estereotipoak saihestea.

Gida guztian zehar, argi markatzen da aholku hauek sormen lanetan nahiz itzulpenetan aplikatu daitezkeela, eta hizkera inklusiboaren mesedetan, generorik gabeko hizkuntza batetik generoa duen batera itzultzean, itzulpen literalak saihestea eta esaldiak birformulatzea zilegi ikusten du.

### 3.2.2 Europako Parlamentua

Europako Parlamentuak hizkera ez sexista erabiltzeko txosten bat argitaratu zuen 2008. urtean zenbait hizkuntzatan, erabiltzen dituzten dokumentuetan hizkera inklusiboa bultzatzeko helburuarekin; izan ere, hasieran aipatzen da testuinguru gehienetan pertsonen sexuak ez duela garrantzirik, edo ez lukeela izan behar. Txosten horren argitalpena baino hamar urte beranduago, 2018an, jarraibideak hizkuntza guztietan eguneratzea erabaki zuten: *Un lenguaje neutral en cuanto al género* edo *Usage d'un*

*langage neutre du point de vue du genre*. Bi bertsoiak alderatuz gero, baieztatu daiteke oso antzekoak direla, eta aldaketa gutxi aurki daitezkeela. Berrikuntzarik nabarmenena da lehen bertsoian bakarrik «hizkera ez-sexistari» buruz hitz egiten zela, eta bigarrenean «hizkera inklusiboa» ere aipatzen dela.

Txostenetan aditzera ematen denez, hizkerak eragin handia izan dezake jendearen jarreran, jokabidean eta pertzepzioan, eta Europako Parlamentuak, bere esanetan, genero berdintasuna bultzatzen duen heinean, bere testuek ere hori erakutsi behar dute, eta hizkera inklusiboak araua izan behar du, ez salbuespena.

Txostenak bi atal nagusi ditu: bata orokorrean hizkuntza guztiei zuzendua, eta bestea hizkuntza zehatz bakoitzari. Hasteko, beraz, hizkuntza gehienetan aplika daitezkeen alderdiak aipatzen dira; hala nola, maskulinoaren erabilera generikoa, lanpostuen eta karguen izendapena, eta egoera zibila eta tratamendua. Azkenik, ondorio gisa, aipatzen du hizkuntza guztiek ez dituztela ezaugarri gramatikal berdinak, eta ondorioz, hizkuntza batzuetarako baliagarria dena, litekeena dela beste batzuetarako ez izatea, eta itzultzaileek, horren jakitun izanda, kontuan hartu behar dutela jatorrizko testuaren idazlearen asmoa generoari dagokionez, eta errespetatu. Bigarren atalean, hizkuntza bakoitzerako berariazkoan, atal orokorrean aipatutako ezaugarri berberak azaltzen dira, baina hizkuntza bakoitzean aplika daitezkeen estrategiak deskribatuz. Gaztelaniako nahiz frantseseko bertsoetan, adibidez, izen neutroen edo esaldi pasiboen erabilera gomendatzen da maskulino generikoa gainditzeko. Hala ere, frantsesekoan «droits de l’homme» esapidea salbuespen gisa mantendu behar dela aipatzen du txostenak, nazioarteko erakundeek finkatutako izen ofizialak ezin baitira aldatu.

Karguei dagokienez, Europako Parlamentuak dio terminoaren genero gramatikala edozein dela ere, bi sexuetako pertsoneri egiten diela erreferentzia, eta beraz, forma tradizionala erabiliko dela (maskulino plurala), baina ondoren, «f/m» zehaztuz, eta emakume zehatz bati buruz ari denean bakarrik emango dela forma femeninoa.

### 3.3 Euskarazko erreferentziak

Euskara genero gramatikalik gabeko hizkuntza denez, hitzun askoren ustez ez du aukerarik ematen erabilera sexistarik egiteko. Emakunderen (Emakumearen Euskal Erakundea) ustez, ideia horren jatorria «auzo-erdaren konparaziotik abiatzen da» (2004). Gaztelania eta frantsesa hizkuntza erromanikoak diren heinean «genero hizkuntzak» dira; hau da, genero gramatikal maskulinoa eta femeninoa dute (neutroaren aztarna gutxi

geratzen dira), eta gainera, maskulinoa generikotzat erabiltzen dute. Horiekin alderatuz gero, eman dezake euskarak ez duela generoari dagokionez arazorik planteatzen, ez delako zehazki aipatzen, eta beraz, ez duelako inor baztertzen. Hala ere, kontuan hartu behar da genero hizkuntza ez izateak ez duela esan nahi euskaraz generoa inoiz aipatzen ez denik. Gainera, hizkuntza batek genero markak izateak ez du berez hizkuntza sexista bihurtzen; sexista jendarteak egiten duen erabilera da, eta beraz, edozein hizkuntzatan ager daiteke erabilera sexista hori.

Adibide gisa *Agur Jaunak* kantaren letra aipatuko dugu. 2015ean, EHUko abesbatzak kantari letra aldatu zion inklusiboagoa egiteko asmoz, eta *Agur Jaunak eta Andreak* bihurtu zuen. Aipagarria da bertsiio berri horrek izaten ari duen hedapena; Euskadiko Orkestrak, adibidez, 2020an letra horrekin abestu zuen.

Gainerako hizkuntzetan bezala, erakunde batzuek hizkera sexista baztertzeko txostenak eta gidak argitaratu dituzte euskaraz. Jarraian, erreferentzia nagusiak aipatuko ditugu; zehazki, Emakunderenak, EAEko administrazioan maila goreneko erakundea delako, eta EHUrenak, GRAL hau unibertsitate horretan aurkezteaz gain, garrantzitsua iruditu baitzaigu jakintza eta ikerketa helburu duen erakunde bat kontuan hartzea.

### 3.3.1 Emakunde

Emakunde Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomo bat da, eta berdintasunerako politikak diseinatu eta bultzatzeaz eta jendea sentsibilizatzeaz arduratzen da.

Emakundek arreta berezia jartzen du hizkuntzan, eta gizonek bezala, emakumeek jendartean egin duten eta egiten duten ekarpena hizkeraren bidez ikusarazi eta nabarmendu behar dela defendatzen du. Gainera, hizkuntzak pertsonen garapenean duen garrantzia azpimarratzen du, hizkeraren bitartez errealitatea izendatzen dugulako, baina interpretatu eta sinbolikoki sortu ere egiten dugu. Esaten dugunaren arabera hartzailleak irudi mental bat edo beste bat sortuko du, eta nola esaten dugun berebiziko garrantzia du errealitatearekin bat datorren irudia sortu dezan.

Sexismoak hizkuntzan duen lekua erakusteko eta euskara modu simetrikotan erabiltzeko Emakundek hainbat testu eta gida argitaratu ditu euskaraz nahiz gaztelaniaz: *El lenguaje instrumento de progreso* (1992), *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago*. *Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak* (1998), *Generoaren ikuspegia*

*komunikazioan eta irudi korporatiboan* (2004) edo *Euskararen erabilera ez sexista* (2008).

1998an argitaratutako lana euskararen neutraltasuna zalantzan jarri zuen lehen lana izan zen, eta agerian utzi zuen euskarak ere zuzendu eta gainditu beharreko ezaugarri sexistak dituela. Gida horretan, hizkera modu desegokian erabiltzeko arrazoitzat androzentrismoa eta sexismoa aipatzen dira, eta horietatik abiatutako akatsik ohikoenak aipatzen dira; hala nola, emakumeak diskurtsoaren bitartez ezkutatzea edo gizonen menpekotzat irudikatzea, pertsonen sexuaren arabera tratamendua eskaintzea, edo ezaugarri ezberdinak nabarmentzea. Azkenik, euskararen ezaugarri zehatz batzuetan zentratzen da eta haien erabilera egokia azaltzen da; hauek dira jorratzen diren ezaugarriak:

- gizon / gizaki / giza hitzen erabilera,
- hitz- elkarketa,
- «jauna» «jaun-andreen» ordeztuz erabiltzea,
- -sa atzizkia
- hitanoa
- hizkuntza erromanikoen eragin desegokia.

2008ko gidan, *Euskararen erabilera ez sexistan*, 1998ko lanean bezala, euskararen neutraltasuna zalantzan jartzen da, eta ondoren ezaugarri zehatz batzuk aztertzen dira. Alde batetik hizkuntza guztietan aplikatu daitezkeen zuzenketak aipatzen dira; hala nola, «gizon» hitzaren erabilera espezifikoak, lexikoan agertzen den asimetria, «neska» edo «emakume» irain moduan erabiltzea, jauzi semantikoa, androzentrismoa, ponte izenen trataera edo genero roleri lotutako esapideak. Bestalde, euskararen ezaugarri zehatzekin lotutako azalpenak ematen dira: hitanoa, generoa duten izenak eta haien pluralak, «andereño» hitza, «gizon» eta «gizon portatu» hitzak, -sa bukaerako femeninoak...

### 3.3.2 Euskal Herriko Unibertsitatea

EHUK ere euskaraz hizkera inklusiboa erabiltzeko gidak argitaratu ditu: *UPV/EHU-n euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gida*<sup>5</sup> eta *Euskararen erabilera inklusiboa* (2018).

---

<sup>5</sup> 2007 eta 2018 urteen bitartean argitaratu zen, baina urte zehatza ez da inon agertzen.

2018an argitaratutako gida hiru ataletan dago banatuta: lehenengoan, hizkuntzan agertzen diren androzentrismoaren aztarnak aipatzen dira eta euskararen neutraltasuna zalantzan jartzen da, eta gainera, hizkerak irudiengan duen eragina azaltzen da; bigarren atalean, alde batetik euskaraz agertzen diren ezaugarri sexistak (hitanoaren erabilera desegokia, erdarazko kalkoen eragina edo genero zantzuak dituzten hitzak, adibidez) eta konponbideak azaltzen dira; bestetik, gizonei eta emakumei hizkeran nahiz irudietan trataera simetrikoa emateko aholkuak ematen dira; azkenik, hizkera ez-sexistatik hizkera inklusibora salto egiten du eta genero binarismoa, transfobia, heterosexualitatearen nagusitasuna, kapazitismoa eta arrazakeria hizkeran eta irudietan nola islatzen diren azaltzen da.

### 3.4 Itzultzailearen paper sortzailea

Orain arte hizkera inklusiboaz hitz egin dugu, baina GRAL honetan itzultzaileen ikuspegitik begiratzen diogu gaiari, eta horretarako ezinbestekoa da itzultzailearen jardunaz eta duen paper sortzaileaz ohar batzuk egitea.

Historian zehar, modu eta ikuspegi desberdinekin begiratu izan zaio itzulpengintzari, garaiaren eta kulturen arabera, eta aldatuz joan dira bai jendarteak itzultzaileengandik espero zuena bai eta itzultzaile profesionalek euren burua ikusteko modua. Lan honetan ez dugu itzulpengintzaren historia osoaren azterketa egingo, baina gaur egun indarrean dauden teoria edo ikuspegi nagusien zenbait elementu aipatuko ditugu. Besteak beste, ezinbestekoak direlako atal praktikoa behar bezala kokatzeko, ez bailuke zentzurik halako azterketa egitea ohartzen ez bagara itzultzailea hizkuntza kodeak trukatzan dituen bitartekaria baino askoz gehiago dela, eta nahi edo nahi ez bere aztarna uzten duela xede testuan.

Itzulpenaren teoria modernoek<sup>6</sup> oraindik Zizeronengandik zetorren jatorrizko testuaren eta itzulpenaren arteko dikotomia ezartzen zuten: jatorrizko testua perfektua da, eta itzulpena kopia inperfektua. Testuinguru horretan, itzulpenaren egitekoa jatorrizko testuaren zentzua inolako manipulaziorik gabe transmititzea zen, eta ondorioa zen itzultzailea ahalik eta ikusezin bihurtzen zela (Jaka 2012: 53).

Aurrerago, hierarkia hori hausten saiatu ziren. Jacques Derridak eta beste pentsalari dekonstrukzionista batzuek, adibidez, itzulpenari jatorrizko testuari baino

---

<sup>6</sup> Itzulpengintzari buruzko teoria modernoak Ferdinand de Saussure (1857-1913) hizkuntzalariak proposatutako teoria linguistikoetan oinarritzen dira.

garrantzi handiagoa eman zioten; horien ustez, itzulpenik gabe jatorrizko testuak existitzeari utziko lioke, eta testu baten zentzua jatorrizkoan ez, baizik eta itzulpenean bilatu behar da (Jaka 2012: 53).

Teoria postmodernoen jatorrizko testua eta itzulpena maila berean jartzen dituzte: «dena kopiaren kopia da, itzulpenaren itzulpen». Ondorioz, dikotomia hori desagertu da, eta itzultzaileari idazlearen estatusa eman zaio. Teoria horien ustez, ezinezkoa da manipulaziorik gabeko itzulpenik egitea, edozein itzulpen prozesutan sorkuntza-lana ere agertzen delako, eta beraz, itzultzaileak ere sortzaileak dira eta testuetan haien aztarna uzten dute (Jaka 2012: 53).

Jakak (2012) aditzera ematen duenez, modernismoaren arabera, «itzultzaileak, itzultzen hasi aurretik, ezin hobeto “jakin” edo ezagutu behar ditu bi hizkuntzak eta kulturak. Itzulpenaren epistemologia postmodernoan, ordea, jakintza ez da itzulpenaren aurretik existitzen zen eduki itxi eta osoa, itzulpenaren bidez gauzatu eta osatzen den zerbait baizik». Ideia horren harira, Maria Tymoczkok (2007) hurrengo azaltzen zuen: «Translation does not merely reflect existing knowledge: it can precede knowledge and create knowledge. Translation is a translator’s mode of discovery used to create, construct, or amass knowledge». Teoria postmodernoen, beraz, ez dute itzulpena eduki transmisio prozesu gisa bakarrik ulertzen, baizik eta sorkuntza eta ezagutza baliabide gisa.

Modernismoko itzultzaileak ahalik eta ikusezin jokatzen saiatu baziren ere, postmodernistek jarrera aktiboagoa hartu zuten «itzultzailearen erabaki-ahalmena, boterea eta erantzukizuna agerian jartzeko», eta testuetan euren «arrastoa» uzten saiatu ziren (Jaka 2012: 58).

Arrizabalagak (2007: 87) aditzera eman zuenez, teoria feministek ere itzultzailearen ustezko neutraltasunari erreparatu zioten eta zalantzan jarri zuten itzulpena errepikatze lan hutsa zenik. Feminismoak, beraz, ez du itzultzailea bitartekari neutro eta ikusezin gisa ulertzen, bere hautuen erantzule gisa baizik. Izan ere, itzulpen proiektu bakoitzaren asmoaren arabera, estrategia batzuk hautatuko ditu itzultzaileak eta horiek eragin zuzena izango dute testuaren interpretazioan. Arrizabalagaren (2007) ustez, gainera, «xede testuak jatorrizko testuan ere eragiten du, eta jatorrizko hizkuntzaren nola xede hizkuntzaren ideologia patriarkalean eragiten du». Arrizabalagak (2007: 89)



«itzulpengintza patriarkala» aipatzen du azpimarratzeko «itzulpena emakumeoi munduan leku egiteko erabili daitekeen bezala, ezkutatzeko ere erabil daitekeela».

### 3.5 Itzulpena eta feminismoa

Mugimendu feministek funtsezko papera izan dute emakume eta gizonen arteko parekotasuna lortzeko bidean, eta hizkera inklusiboaren gaia ere jorratu dute parekotasunik gabeko diskurtsoetan duen paperagatik, baina lan honetarako berebiziko garrantzia dute itzulpena eta feminismoa lotzen dituzten teoriak.

Castrok (2008) azaltzen duenez, 1980 eta 1990ko hamarkadetan, Kanadan, itzulpena eta ideologia feminista gerturatu ziren, eta itzulpen feministaren eskola sortu zen; korrante berri horren helburua hizkeran eta jendartean zegoen karga patriarkala deuseztatzea zen. Bereziki hiru xede zituen:

- 1) emakumeek idatzitako obra asko patriarkatuan «galdu» zirela salatzea,
- 2) liburu feministen zentzua aldatu, indargabetu eta ideologia patriarkalera gerturatu zuten itzulpenak agerian jartzea,
- 3) emakumeen irudikapena itzulpenaren bidez aldatzea, hizkera sexista zalantzan jarriz eta alternatibak eskainiz.

Arestian aipatu bezala, ezinezkotzat jotzen da testu bat guztiz modu neutroan eta fidelean itzultzeko aukera, eta ondorioz, momentura arte objektiboa eta ikusezina zen itzultzailearen figura ere aztertzeari ekin zitzaion. Hitz gutxitan, esan genezake itzulpen feministak nork, zer eta nola itzuli den dituela aztergai.

Euskararen kasuan, itzulpenaren eta feminismoaren arteko lotura ez zen 2007ra arte aztertu; urte horretan *Senez* aldizkarian *Itzulpena eta feminismoa* artikulua argitaratu zen, Bakartxo Arrizabalagak idatzita. Manterolaren (2020) ustez, ordura arte gaia ez jorratzeko bi arrazoi nagusi daude: alde batetik, itzulpen ikasketak unibertsitatean berandu ezarri izana (lehen promozioa 2000-2001 ikasturtekoa da); bestalde, euskara generorik gabeko hizkuntza dela pentsatzearen ondorioz, pentsa liteke ez dela beharrezkoa genero ikuspegitik aztertzea.

Itzulpena eta feminismoaren arteko lotura euskaraz aztertzen zuen lehen lan horren argitalpena baino 13 urte beranduago, esan dezakegu baditugula itzulpena genero ikuspegitik aztertzen duten hainbat erreferentzia euskaraz.

Emakumeek eta feminismoak euskal itzulpengintzan duten lekua aztertzeko hiru ezaugarri zehatzei erreparatuko diegu: euskal emakume itzultzaileen lekua, itzulgaien egiletza eta izaera genero ikuspegitik, eta azkenik, nola itzultzen den.

### 3.5.1 Emakume itzultzaileak

Arrizabalagaren arabera (2007: 82), emakumeak gehiengoa dira itzulpen jardunean, baina, hala ere, «beste alorretan bezala, emakumeak bigarren mailan mantentzen dira». Hainbat esparrutako datuak aztertuko ditugu:

Arrizabalagak 2007an emandako datuen arabera, ordura arte EIZIEko kide gehienak gizonak ziren, baina azken urteetan, joera aldatu da eta orain emakumezko gehiago daude: 196 emakume eta 147 gizon (Arrizabalaga 2018: 41). Gainera, aipagarria da zuzendaritza taldea sei emakumek eta bi gizonek osatzen dutela, eta 2008 urteaz geroztik, hiru gizon eta lau emakume izan direla lehendakari.

EHUn Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak burutzen dituzten ikasleen kasuan, 2000-2001 ikasturtetik 2017-2018 ikasturtera bitartean, ikasleen % 80 baino gehiago emakumeak izan dira (Murgiondo 2018: 16).

Azken hamarkadetako euskal itzulpengintzan emakumeek izan duten lekua aztertzeko, hiru bilduma esanguratsu aztertuko ditugu:

Hasteko, Literatura Unibertsala bildumari erreparatuko diogu. Bilduma horren lehen epean (1990-2010) 150 liburu itzuli ziren; itzultzaile horietatik 114 gizonak izan ziren eta 34 emakumeak. Bigarren epean (2012-2018) 20 liburu itzuli ziren: 13 itzultzaile gizon eta 7 emakume. Harrigarria da horrenbesteko aldea egotea, kontuan hartzen badugu itzultzailea lehiaketa anonimo bitartez aukeratzen dela, baina Isabel Etxeberria itzultzailearen ustez, horren arrazoia ez da emakumeen bertsioak okerragoak direnik, baizik eta gizon gehiago aurkezten direla lehiaketara (Ugalde 2018: 49).

Pentsamenduaren Klasikoak bildumari dagokionez, 1991 eta 2010 urteen artean 130 obra itzuli ziren, eta horietatik 15 itzuli zituen emakumeren batek.

Azkenik, Munduko Poesia Kaiara bilduma aipatuko dugu, 2014az geroztik argitaratutako 32 lanetatik, 8 emakume itzultzaile izan dituenak.

Argitaratutako bildumez gain, euskara lan hizkuntza gisa duten hiru itzulpen sari izango ditugu aztergai:

Euskadi Sariari erreparatzen badiogu, 1989-2018 bitartean 19 gizonak, 3 emakumek eta bi bikote mistok jaso dute saria; osotara, 21 gizonak eta 5 emakumek (Manterola 2020: 144).

Vitoria-Gasteiz Itzulpen Sariaren haurren literaturaren kategoriari dagokionez, 2003tik 2018ra 3 emakumek, 10 gizonak eta bikote misto batek jaso dute saria. Gazteen literaturaren kategorian, aldiz, 7 emakumek eta 18 gizonak (Manterola 2020: 145). Kasu honetan, gizonen eta emakumeen kopuruen artean aldea egon arren, ez da arestian aipatutako bildumetan bezain nabarmena eta Manterolaren iritziz, emakumeek haur eta gazte literaturaren itzulpenean besteetan baino presentzia handiagoa dutela erakusten dute datu horiek.

Azkenik, Etxepare Laboral Kutxa Itzulpen Sariari erreparatzen badiogu, egin diren lau edizioetan (2015-2019), bi gizonak eta bi emakumek irabazi dute (Manterola 2020:144).

Datu horiek guztiak kontuan hartuz, ikus dezakegu aipatutako sari eta bilduma guztietan emakume itzultzaileak gutxiengoa izan direla, baina azken aldiak hartzen ari direla. Murgiondoren ustez (2018), zenbat eta berriagoa izan argitaletxea, orduan eta handiagoa da lanak itzultzen dituzten emakumeen presentzia.

### 3.5.2 Itzulgaien egiletza eta izaera

Orain arte nork itzuli duen aztertu dugu, baina zer itzuli den genero ikuspegitik aztertzea ere interesgarria izan daiteke, eta horretarako, aurreko puntuan aipatutako bildumak aztertuko ditugu alde batetik, eta bestetik, feminismoaren gaia lantzen duten bildumak.

Manterolak (2020: 146) Literatura Unibertsala bildumako itzulgaiak aztertu eta datu hauek bildu zituen: bildumaren lehen epean (1990-2010) itzultitako 150 lanetatik, 136 gizonak idatzitakoak ziren, eta 14 emakumeek. 2012an, momentura arte egindako lana aztertu zuten eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea erabaki zuten, eta horri esker, bigarren epean (2012-2018) itzultitako 20 lanen erdia emakumeek idatziak ziren.

Pentsamenduaren Klasikoak bildumari dagokionez, 1991 eta 2010 urteen artean itzultitako 130 lanen artean, 4 autore emakumezko aurki daitezke.

Azkenik, poesiari erreparatzen badiogu, Ugaldek (2018) adierazi zuen Munduko Poesia Kaiera bilduman 2018ra arte itzulitako 28 antologietatik 12k jasotzen zituztela emakumeen lanak. Datu horiek eguneratuz gero, ikusiko dugu 2020ko maiatzera arte argitaratutako 32 itzulpenetatik 13k dutela emakumezko autoreak.

Beste alde batetik, Arrizabalagak 2007an adierazi zuen ez zegoela feminismoaren gaiari lotutako bildumarik argitaletxeek oso interes gutxi erakusten zutelako gaiaren inguruan, eta baieztatzen zuen «testu feministen hedapena emakumeen eskuz egin dela, argitaletxe txikien eta autoedizioaren bitartez». 2018an argitaratutako lanean, aldiz, onartzen zuen egoera aldatzen ari zela eta dagoeneko testu feminista garrantzitsu batzuen itzulpenak argitaratzen hasi zirela. Horren harira, lau egitasmori erreparatuko diegu.

Lehenik eta behin, *Sareinak* egitasmu literarioa. Lau euskal emakume feministek osatutako taldea da, eta haiek azaltzen dutenez, euskal literatura zulatuta nabaritzen dute eta zulo horietatik emakumeen izenak, liburuak eta lanak amiltzen direnez, sarea konpontzen saiatzen dira emakume idazleen lanak ezagutzera emanez.

Bestalde, bi bilduma aipatuko ditugu: *Lisipe* eta *Eskafandra*. Lisipe bilduma Susa argitaletxeak sortu zuen 2016. urtean Jule Goikoetxearen zuzendaritzapean. Bildumaren barruan feminismoari buruzko zazpi saiakera argitaratu dira<sup>7</sup>, euskaraz idatziak nahiz euskaratuak, guztiak emakumeek idatzi edota itzulitakoak. Eskafandrari dagokionez, Jakin eta Elkar argitaletxeek elkarlanean sortutako bilduma da eta Jakinek honela definitu zuen: «Feminismoaren azken hiru mendeetako hainbat lan giltzarri euskaratzea du helburu bilduma berri honek, eta horrekin pentsamendu feministaren eremuan euskarak duen hutsunea betetzea». Osotara sei liburu argitaratu dituzte<sup>8</sup>, guztiak itzulpenak eta emakumeek idatziak. Itzulpenei dagokienez, guztiak emakumeek gauzatu dituzte, bat izan ezik, emakume eta gizon batek elkarlanean egin dutena.

Azkenik, Katakarak argitaletxea aipatuko dugu, Iruñean kokatuta dagoen eta izen bera duen liburu-dendaren inguruan sortutako argitaletxe gaztea. 2016an pentsamenduari eta literaturari buruzko obrak argitaratzen hasi zen, gaztelaniaz nahiz euskaraz, eta

---

<sup>7</sup> *Pentsamendu heterozuzena* (Monique Wittig, 2017) eta *Kontrako eztarritik* (Uxue Alberdi, 2019), adibidez.

<sup>8</sup> *Bigarren Sexua* (Simone de Beauvoir, 2019), *Caliban eta sorgina* (Silvia Federici, 2017) eta *King Kong teoria* (Virginie Despentes, 2017), adibidez.

egunera arte, pentsamendu feministari buruzko lau obra garrantzitsu<sup>9</sup> euskaratu ditu (Manterola 2020: 150).

Manterolaren (2020) ustez, pentsamendu feministarekin zerikusia duten obra horiek harrera positiboa jasotzen ari dira merkatuan, eta Ana Isabel Morales itzultzailearen ustez, eskaera sortu da feminismoa «akademiara» iritsi delako (genero ikasketak eta feminismoari buruzko masterra sortu dira euskaraz) eta interesa alor akademikotik harago jendartera heldu delako (Ugalde 2018: 49).

### 3.5.3 Itzultzeko modua

«Hizkuntza bakoitzak modu eta molde desberdinean sexuatzeko du diskurtsoa» (Arrizabalaga 2007: 87). Gainera, Manterolak (2020: 151) aditzera ematen duen bezala, hizkuntza baten erabilera sexista jendartearen ikuspegi patriarkalaren ondorio zuzena da, eta beraz, itzulpena hizkuntzaren parte denez, «hizkuntza baten eboluzioan eragina izan dezake, eta existitzen diren joerak iraunarazi edo alda ditzake».

Feminismoak hizkuntzan atentzioa jartzen du eta hizkuntza baten barruan «hizkera patriarkaletik hizkera feministarako itzulpena» aipatzen da, baina horrez gain, kritika horrek hizkuntzen arteko itzultzailearen ustezko neutraltasuna zalantzan jartzen du, eta bi ikuspegitik aztertzen ditu itzulpenak: emakumeek idatzitakoak nola itzuli diren, eta jatorrizko testu baztertzailak nola itzuli diren emakumeei lekua egiteko.

Hizkuntza batetik bestera generoa itzultzeko arazo nagusia hizkuntzek gramatika ezberdina dutenean sortzen da (Castro 2008: 291), euskara eta gaztelaniarekin lan egitean, adibidez. Horren harira, Manterolak (2016) bi adibide ematen ditu euskaratik gaztelaniara itzultzeko prozesuan agertzen diren arazoak erakusteko:

Alde batetik, Danele Sarriugarteren *Erraiak* (2014) liburua aipatzen du. EIZIEK 2014ean *Idazlea itzultzaileen lantegian* antolatutako jardueran, Sarriugarte eta bere lanaren hiru itzultzaile (gaztelaniakoa, katalanekoa eta frantsesekoa) elkartu ziren, eta genero gramatikalaren itzulpenaz aritu ziren. Izan ere, jatorrizko testuak irakurketa irekia eskaintzen zuen generorik zehazten ez zuelako, eta argumentuak kontzientzia feminista iradokitzen zuenez, itzulpenen formari garrantzia ematen zitzaion (Manterola 2016). Anbiguetate hori mantentzeko hainbat estrategia iradoki ziren, haien artean, dobleteak

---

<sup>9</sup> *Emakumeak, kultura eta politika* (Angela Davis, 2018) edo *Soldataren patriarkatua. Marxismoari egindako kritika feministak* (Silvia Federici, 2017), adibidez.

edo femeninoa modu generikoan erabiltzea. Sarriugarte bigarren aukera horren alde agertu zen, baina parte-hartzaileek kontsideratu zuten irakurleak ez zuela generikotzat ulertuko, eta hitzaurrean hori azaltzea proposatu zuten, baina azalpenak eman beharra, Manterolaren (2016) ustez, diskurtso feministaren porrota onartzea litzateke. Manterolaren (2016) ustez, azkenean ez zuten konponbide gogobetegarrik aurkitu, landutako hiru hizkuntza erromanikoetan zehaztu behar izan zelako, euskarazkoan egiten ez zen kasuetan. Lanaren lehenengo kapituluari erreparatzen badiogu, adibideren bat aurki dezakegu; euskaraz «alargun» eta «dibortziatu» jartzen zuen lekuan, gaztelaniaz «viudos» eta «divorciados» (maskulino generikoa) jarri zen, frantsesez «veufs(ves)» eta «divorcé(e)s» (forma inklusiboa), eta katalanez «viuds» eta «divorciats» (maskulino generikoa). Ikus daitekeen bezala, itzultzaile guztiek ez zuten estrategia beraren aldeko apustua egin.

Bestalde, Ane Irizarrek Garazi Arrularen *Abian* lana haren GRALerako gaztelaniara itzultzean izan zituen arazoak aipatzen ditu. Jatorrizkoak pertsonaia baten sexua ezkututzen du eta jolas modura planteatzen da, baina Irizarrentzat oso zaila izan zen anbiguetate hori mantentzea (Manterola 2020: 154). Irizarren (2018) ustez, genero bat edo beste aipatzea askotan ez du eraginik kontakizunean, baina «badu eragina imajinario sozial eta kulturalaren sorreran».

Kontrako konbinaketari erreparatzen badiogu, hau da, gaztelaniatik euskarara itzultzean, arazoa kontrakoa da: zein puntutaraino da beharrezkoa generoa zehaztea? Manterolak (2020: 156) dioenez, «askotan, hiztunen eta itzultzaileen kontzientzia feministaren aurrean, kontzientzia matxista gailentzen da». Aiora Jaka itzultzaileak azaltzen du (2013) zalantzak ez direla agertzen maskulinoak itzultzerakoan, baizik eta femeninoak itzultzerakoan. Gainera, onartzen du amorru ematen diola taxi-gidari bat gizona zela esplizitatzeko beharra sentitu ez izana «normaltzat» jotzen delako, baina «persona bat» gisa agertzen den beste pertsonaia bat emakumea delako esplizitatzeko beharra bai.

Adibide horiei esker, argi geratzen da euskal itzultzaileek ere ez dutela oso argi zertan datzan kontzientzia feministaren arabera itzultzea, eta konponbide egokiak aurkitzea ez dela beti lan erraza izaten. Izan ere, pertsonaia bat emakumea dela zehaztean, ikusgaitasuna ematearen eta emakumeak salbuespen gisa erakustearen artean mugituko gara, eta gerta liteke espero dugunaren kontrako efektua lortzea.

## 4. ATAL PRAKTIKOA

Orain arte itzulpen jardunean eta hizkera inklusiboan sakondu dugu, eta itzultzaileen hautuek izan ditzaketen eraginak zeintzuk diren aztertu ditugu. Horren jakitun izanda, jakin nahi izan dugu zer nolako lekua duen hizkera inklusiboaren erabilerak euskal itzultzaileen artean, eta horretarako, lehen aipatu den bezala, bi ariketa praktikoa planteatu zaizkie EHU-n Itzulpengintza eta Interpretazioa euskaraz ikasten duten ikasleei eta hainbat euskal itzultzaile profesionaleri. Alde batetik, euskaraz zegoen testu bat gaztelaniara itzultzea, eta bestetik, inkesta bat betetzea<sup>10</sup>. Ariketa horien bitartez ezagutu nahi genituen ezaugarri nagusiak hurrengoak ziren:

- hizkera inklusiboaren erabilera euskal itzulpengintzan,
- itzultzailearen sexuak eragina ote duen hizkera inklusiboaren erabileran,
- zein genero eta testu motatan bermatzen den gehiago hizkera inklusiboa,
- EHUko Itzulpen eta Interpretazio graduan hizkera inklusiboa nahiko lantzen ote den,
- hizkuntza konbinaketa bakoitzean hizkera inklusiboa bermatzeko erabiltzen diren estrategiak zein diren.

### 4.1 EHUko ikasleak

EHU Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak euskaraz egiteko aukera ematen duen unibertsitate bakarra da, baina ikasgaietako irakaskuntza gidetan ez da inon berariaz aipatzen hizkera inklusiboari buruzko ezer; ondorioz, ikasleek euren kabuz landu eta garatu behar dute hizkera inklusiboaren erabilera itzulpenetan. Hala ere, aipatzekoa da geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela ikasleen artean, eta horren frogarria da geroz eta GRAL gehiago egiten ari direla genero ikuspegitik (Manterola 2020: 148). EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasleek hizkera inklusiboari buruz duten jarrera aztertzeko, itzulpen ariketa bat planteatu zaie, eta ondoren inkesta bat.

#### 4.1.1 Ikasleen itzulpenen analisia

Ikasleek hizkera inklusiboa erabiltzeko joera duten ala ez aztertzeko, graduko bigarren eta hirugarren mailako ikasleei itzulgai bat bidali genien, euskaratik gaztelaniara itzul zezaten. Itzulgaia bakarrik bigarren eta hirugarren mailakoei bidaltzeko bi arrazoi nagusi daude: lehenengo mailakoek oraindik ez dute ia itzulpenik egin, eta laugarren

---

<sup>10</sup> Itzulgaia eta inkestak eranskinen atalean eskuragarri daude.

mailakoek, nire klasekideek, alegia, lantzen dudan gaiaren jakinaren gainean daude, eta ondorioz, haien emaitzak baldintzaturik egon litezke. Jatorrizko testuan ez da genero markarik agertzen, baina baditu ezaugarri batzuk itzultzaileari generoari buruzko hautu batzuk harraraziko dizkionak. Testuan ageri diren eta aztertu ditugun elementuak hurrengoak dira:

- izenak: **ikasleak** (sarritan agertzen da testuan zehar),
- adjektiboak: **onartua** izatea, **gai** dela,
- aditz laguntzaileak: erakutsi nahi **duenak**, burutzen ez **duenak**, gainditu **dutenek**.

Testu horren 13 itzulpen jaso genituen, eta haien arteko ezberdintasunak sakonki aztertu ondoren, generoari dagokionez, lau multzotan sailkatu ditugun estrategia batzuk identifikatu ditugu:

a) Maskulino generikoa

Aipatutako ezaugarriak itzultzeko, ikasle batzuek maskulino generikoa erabiltzea erabaki dute. Hiru kasutan hori izan da itzulpenean zehar gehien erabilitako estrategia; beste batzuetan, aldiz, behin edo bitan agertu izan da bakarrik itzulpenean zehar, eta kasuren batean ematen du nahigabe izan dela. Osotara, hamahiru parte-hartzaitetik zortzik behin gutxienez erabili dute maskulinoaren forma generikoa.

b) Errepikapenak

Ikasle batzuk forma honetaz baliatu dira hizkera inklusiboa bermatzeko; zehazki, hamahirutik zazpi behin gutxienez erabili dute. Batzuek bakarrik artikularen bi formak ematea erabaki dute: «la o el estudiante» (kasu honetan, artikularen atzetik generorik gabeko hitz bat erabili dute) edo «los y las alumnas» (komunztadura gertuen dagoen artikularekin eginez). Beste batzuek, aldiz, sintagma osoa errepikatu dute: «el alumno o la alumna», «apto o apta» edo «aquellos y aquellas».

c) Zehar marra

Gaztelaniaz hizkera inklusiboa bermatzeko estrategiak lantzen dituzten gidek ez dute baliabide hau gomendatzen ez bada karaktere zenbaki mugatu bat dugulako edo formulario moduko testu bat delako, irakurgarritasunari traba egiten baitio.



Hala ere, ariketa praktiko honetan ikasle batzuek erabili dute, baina aipatzekoa da gutxien erabili duten estrategia dela, bakarrik bostek hamahirutik. Hemen ere, ikasleek egitura ezberdinak erabili dituzte, beste batzuen artean, hurrengo hauek: «el alumno/a», «el/la estudiante», «el/la alumno/a», «capacitado/a», «el/la que quiera».

d) Generoa saihestu

Azkenik, generorik gabeko hitzen erabilera aipatu nahiko genuke. Askoren ustez estrategia hau aproposena da ez duelako irakurgarritasuna oztopatzen eta naturaltasuna ematen diolako testuari. Kasu askotan zaila izaten da mota honetako hitzak aurkitzea, baina testu honetan hamahirutik hamabik gutxienez behin erabili dute estrategia hau. Alde batetik, generorik gabeko izenak eta adjektiboak aurkitu daitezke: ohikoena «estudiante» alumno beharrean izan da, baina beste adibide asko ageri dira: «alumnado», «quienes», «capaz», «competente», «aquellas personas», «cada participante». Bestalde, kasu batzuetan esaldiak inbertsonalizatu dituzte: «no supone el acceso», «no asegura entrar» edo «no implica la admisión».

#### 4.1.2 Ikasleen inkestaren analisisa

Ikasleek erabiltzen dituzten estrategiez gain, itzulpenaren, ikasketen eta hizkera inklusiboaren arteko harremanari buruzko haien iritzia ezagutu nahi izan genuen inkesta baten bitartez. Inkesta hori bigarren, hirugarren eta laugarren mailako Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua euskaraz ikasten duten ikasleei bidali zitzairen, eta 33 erantzun jaso genituen.

33 ikaslez osaturiko lagin horretan, 27k genero femeninoarekin identifikatzen zuten euren burua (% 81,8) eta 6k maskulinoarekin (% 18,2). Ikasle guztiek 19 eta 23 urte bitartean zituzten; 33 horietatik 6 graduako bigarren mailan zeuden, 10 hirugarrenean eta 17 laugarrenean.

Hizkera inklusiboak itzulpengintzan duen paperaz inoiz hausnartu ote duten galdetzean, bakar batek eman zuen ezezkoa, gizona; beste 32ek, aldiz, baietz erantzun zuten. Gainera, 31k adierazi zuten noizbait hizkera inklusiboa erabili dutela klaseko nahiz kanpoko itzulpenetan, batez ere komunikazioa, marketinga eta turismoaren testuinguruan, edo giza-zientzien eta humanitateen alorrean; inoiz erabili ez dutenak

gizonezko bat eta emakumezko bat dira. Ikasleek hizkera inklusiboa gutxien erabiltzen duten testuinguruak tekniko-zientifikoa eta juridiko-ekonomikoa dira. Hala ere, 30en ustez (% 90,9), klasean ez dute hizkera inklusiboaren erabilera nahiko landu.

Azkenik, hizkuntza konbinaketa bakoitzean erabiltzen dituzten estrategiei buruz galdetu zitzairen eta beste batzuen artean, hauek dira erantzunetako batzuk:

Gaztelaniara itzultzean:

- Generorik gabeko hitzen erabilera (persona, profesorado, inteligente...).
- Errepikapenak (los y las docentes).
- Esaldiaren birformulazioa (los chinos tienen > en China existe).
- Femenino generikoaren erabilera «personas» hitzari erreferentzia egiten diolako.
- Zehar marrak (amigo/a).
- «E» inklusiboaren erabilera (les alumnes).

Euskarara itzultzean:

- Beharrezkoa denean generoa markatzea (emakumezko irakaslea).
- Orokortzea (gizona > gizakia).
- Izartxoaren erabilera trans komunitatea barne sartzeko (neska\*).

Ikus daitekeen bezala, ikasleek aipatutako estrategia gehienak enkargatutako itzulpenetan aurkitu ahal izan ditugu, hala nola, errepikapenak, generorik gabeko hitzak, zehar marren erabilera...

Aipatzekoa da gehienek hizkera inklusiboaren eta itzulpengintzaren arteko harremanaz hausnartu dutela esan arren, gutxi aipatu zutela euskarazko adibideren bat. Erabiltzen dituzten estrategiei buruz galdetzean, 33tik 21ek erantzun zuten, eta 6k bakarrik aipatu zuten esplizituki euskararako itzulpen prozesuko adibideren bat; hauek dira horietako erantzun batzuk:

- «Euskaraz ez dago generorik, orduan euskarara itzultzean ez dago arazorik».
- «Euskaraz eta ingelesez, printzipioz, errazagoa da».
- «Euskaraz ez zait bururatzen».
- «Xede hizkuntza euskara bada: generoa nabarmentzea beharrezkoa denean (irakaslea > emakumezko irakaslea) edo orokortzea (gizona > gizakia)».
- «Gaztelaniatik, ingelesetik edo errusieratik euskarara itzultzean ez dago arazo handirik».

Inkesta honen amaieran, 4. mailako ikasleei galdetu zitzairen ea ezagutzen zituzten hizkera inklusiboa euskaraz nahiz gaztelaniaz erabiltzeko EHUk argitaratutako gidak, eta 14tik 8k adierazi zuten ez zutela gida horien berri. Gidak ezagutzen zituzten 6 ikasleen artean, 3k irakasleen bitartez klasean ezagutu dituzte, eta beste hirurek euren kabuz aurkitu dituzte.

## 4.2 Itzultzaile profesionalak

Lan honen atal praktikoaren xedea EHUko ikasleen jarrera ezagutzeaz gain, euskal itzulpenaren munduan diharduten profesionalen jarrera eta iritzia ere ezagutzea zen. Hala ere, COVID-19 birusaren ondorioz bizitzen ari garen ezohiko egoera honetan, zaila izan da atal hau aurrera eramatea. Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) sarean eskuragarri duen direktorioaz baliatuz, itzultzaileak modu aleatorioan aukeratu genituen, beti ere gaztelania xede hizkuntza gisa erabiltzen zutela kontuan harturik. Ikasleei bezala, hasieran hainbat itzultzaile itzulgaia bidali eta gaztelaniara itzultzea eskatu zitzairen. Kasu honetan, 81 itzultzaile planteatu genien ariketa, baina bakarrik bost erantzun jaso genituen (hiru emakume eta bi gizonena). Jarraian, bost horiei inkesta bidali genien, eta lauk bete zuten. Beraz, argi dago bost itzultzailez osatutako laginak ezin duela, inondik inora ere, euskal itzulpenaren egoera benetan irudikatu. Hala ere, jasotako erantzunak aztertu genituen eta jarraian azalduko ditugu emaitzak.

### 4.2.1 Itzultzaile profesionalen itzulpenaren analisia

Alderatzeko bost bertsio bakarrik izan arren, ikasleen bertsioetan bezainbeste estrategia agertu dira itzultzaile profesionalen itzulpenetan. Beraz, kasu honetan ere lau multzo ezberdindu ditugu:

a) Maskulino generikoa

Bi itzulpenetan erabili da maskulino generikoa, batez ere «alumno» hitzaren bitartez.

b) Errepikapenak

Estrategia honetaz bereziki bi itzultzaile baliatu dira eta euren itzulpenean zehar gehien erabilitakoa izan da. Adibide batzuk «el alumno o la alumna» edo «capacitados o capacidades» dira.

c) Zehar marra

Kasu honetan, itzultzaileetako batek testu osoan zehar erabili du estrategia hau («el/la alumno/a»), eta beste batek behin bakarrik erabili du («apto/a»).

d) Generoa saihestu

Ikasleen artean bezala, estrategia hau erabiliena izan da; izan ere, lau bertsiotan agertu da, eta generorik gabeko hitzen eta inbertsonalizazioen bitartez izan da («quien quiera» edo «no conlleva la admisión»).

#### 4.2.2 Itzultzaile profesionalen inkestaren analisia

Inkesta bete zuten lau itzultzaileetako hiru emakumeak ziren, eta bat gizona, laurak 55 eta 64 urte bitartekoak. Laurek gaztelania erabiltzen dute batez ere jatorri hizkuntza gisa, eta gehien lantzen dituzten testuak alor juridiko-ekonomikoarekin, giza-zientziak eta humanitateekin, edo komunikazioa, marketinga eta turismoarekin lotutakoak dira. Parte-hartzaileetako bi autonomoak dira, beste bat soldatapekoa administrazioan, eta laugarrena soldatapekoa enpresa pribatu batean.

Laurek adierazi dute hizkera inklusiboak itzulpengintzan duen tokiaz hausnartu dutela, baina batek ez du inoiz erabili bere itzulpenetan. Erabili dutenek, giza-zientziak eta humanitateen testuinguruan edo literaturan izan da. Hiru horietako batek, gainera, oso gutxitan erabili behar izan duela aipatu du. Parte-hartzaileetako hiruk adierazi dute bezeroek inoiz ez dietela hizkera inklusiboa erabiltzeko eskatu, baina laugarrenak dio noizbait eskatu izan diotela.

Bukaeran, hizkuntza konbinaketa bakoitzean hizkera inklusiboa bermatzeko erabiltzen dituzten estrategiei buruz galdetu zitzairen, eta honako estrategia hauek aipatu zituzten:

Gaztelaniara itzultzean:

- Zehar marren erabilera.

Euskarara itzultzean:

- Hiztegi moldaketa (gizonki > ausart; gizon > gizaki > pertsona; anai artean > lagun artean; anai-arreba/neba-arreba/anaia/ahizpa > haurride; gizarte > jendarte).
- Hika behar den kasuetarako uztea eta era egokian erabiltzea.
- Emakume batez ari dela azpimarratzea kasu batzuetan, adibidez, bibliografian ponte izen osoa jarritz.

- Genero markarik gabeko terminologia erabiltzea, «aita-ama» eta era horretako elkarketak saihestuz.

#### 4.3 Atal praktikoaren ondorioak

Lan hau egiteko erabilitako lagina oso txikia da, eta beraz ezin dira emaitzak errealitate absolututzat hartu; hala ere, ondorio batzuk atera daitezke.

Hasteko, ikasleei dagokienez, inkesta bete duten 33tik 27 emakumeak ziren, eta 6 gizonak; Murgiondok (2018) aipatzen zuen 2000-2001 ikasturtetik 2016-2017 ikastertera arteko EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasleen % 80 baino gehiago emakumeak izan direla, eta lagin hau datu horien adierazle bat izan daiteke, nahiz eta lan honetan ez den graduiko ikasle guztien azterketarik egin.

Ikasleek egindako itzulpenak eta erantzundako inkestak aztertu ondoren, argi eta garbi ikus daiteke hizkera inklusiboa kontuan hartzen dutela eta gehienak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzen saiatzen direla haien itzulpenetan. Itzultzaile profesionalei dagokienez, alderatzeko bost bertsio besterik ez izatean, ezin da ondorio irmorik atera, baina ikusten da hizkera inklusiboa ohiko jardun profesionalean ere erabiltzen dela, unibertsitatetik kanpo. EHUko webgunean argitaratu den testu horren gaztelaniako bertsioari erreparatzen badiogu, hizkera inklusiboa aurkituko dugu (el/la aspirante, el/la candidato/a, capacitado/a), baina maskulino generikoaren kasuren bat ere aurkitu ahal izango dugu (todos los aspirantes).

Hasieran planteatutako helburuei erreparatuz gero, esan daiteke lagin honetan ez duela ematen itzultzailearen sexuak garrantzi handia duenik hizkera inklusiboa erabiltzeko hautuaren momentuan; izan ere, emakumeek nahiz gizonak erabili dute.

Datu hauek aztertu ondoren, ondorio argi bat da EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioa graduan hizkera inklusiboa ez dela nahiko lantzen, gaiari buruzko gida zehatzak eduki arren. Ikasleen artean bakarrik hiruk uste dute kontrakoa, eta inkestaren erantzunei erreparatuz gero, agerian geratzen da ikasle gehienek ez dutela euskaraz pentsatzen hizkera inklusiboaz hitz egitean. Agian hasierako galdera ez zen guztiz ondo planteatu, eta ea euskarak hizkera inklusiboa landu behar ote duen uste duten ala ez galdetuz hasi beharko litzateke inkesta. Itzultzaile profesionalen erantzunei erreparatuz gero, aldiz, ikusten da gutxienez bik kontuan hartzen dutela euskarak ere badituela ezaugarri sexistak eta horren jakitun izanda, konponbideak bilatu dituztela.

Azkenik, garrantzitsua da berriz ere azpimarratzea ikerketa honen emaitzak ezin direla behin-betikotzat jo, 33 ikasleko eta 5 itzultzaile profesionaleko lagin txiki batekin egin baita. Ezin dira lan honetan ateratako emaitzak Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasle guztietara eta euskal itzultzaile guztietara orokortu.

## 5. ONDORIOAK

Hasieran aipatzen genuen bezala, lan honen helburuetako bat hizkera inklusiboaren garrantzia aztertzea zen, eta aipatutako iturri ezberdinei erreparatu ondoren, argi geratzen da hizkera inklusiboa gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eraikitzeke ezinbesteko tresna dela, eta beraz, giza eskubideekin lotura duen gaia dela. Askoren ustez, hizkera inklusiboaren gaia azken urteotako kontu bat da, baina ikusi dugun bezala, nazioarteko erakunde gorenek aspaldi heldu zioten gaiari. Azken hamarkadetan feminismoak indar handia hartu du gure jendartean, eta belaunaldi gazteek geroz eta ahalegin gehiago egiten dituzte berdintasun hori bermatzeko. Ondorioz, pentsatzen dugu hizkerak ere aldaketa hori behar duela errealitatea ongi irudikatzeko. Gainera, errealitateak hizkera aldatu dezakeen bezala, hizkerak ere errealitatea aldatzen, eta beraz, jendarte parekoago bat eraikitzen lagun dezake.

Itzultzaileek hizkuntzaren bilakaeran eragin handia dute, beste hizkuntza eta kulturetatik kontzeptu eta termino berriak ekartzen dituztelako eta errealitate berriak edo xede kulturean ezezagunak diren gauzak izendatu behar dituztelako. Gainera, ikusi dugu itzulpenetan euren arrastoa uzten dutela, nahi edo nahi ez, eta horrek irakurleen interpretazioa baldintza dezakeela. Horregatik uste dugu ezinbestekoa dela hizkera inklusiboa itzulpen arloan lantzea, itzultzaileak kontziente izan daitezen egiten dituzten hautuek ondorio batzuk izango dituztela. Hautu horien artean, hizkera inklusiboaren erabilera egongo da; kasu gehienetan, ziurrenik, itzultzailearen esku geratuko da hizkera inklusiboa erabiltzea edo ez, nahiz eta halakoa erabiltzea eskatzen duten bezeroak geroz eta gehiago izan, baina hainbat hizkuntza konbinaketatan dauden aukerak itzultzaileen esku jartzea ezinbestekoa iruditzen zaigu hizkera inklusiboa geroz eta esparru gehiagotan bermatuta ikusteko.

Hizkera inklusiboak euskal itzulpengintzan duen lekuari buruz, aipatu beharra dago lan honetarako erabili den lagina ez dela nahikoa benetako egoera ondo ezagutzeko, eta beraz, atera ditugun ondorioak ezin dira, inondik inora ere, euskal itzulpengintza osora orokortu, baina nolabaiteko ideia bat egiteko balio dezakete. EHUko ikasleekin egindako

ariketa praktikoak aztertuz, ematen du hurrengo euskal itzultzaile belaunaldiek gaiaren inguruko informazioa badutela, eta hizkera inklusiboa bermatzen saiatzen direla. Gainera, ematen du feminismoaren gaiak interesa piztu duela, eta argitaletxeek horren aldeko apustua egiten jarraituko dutela. Hori guztia kontuan hartuz, pentsa genezake urte batzuk barru argitaratuko diren euskal itzulpen askotan hizkera inklusiboa estrategia ohikoena izango dela. Hala ere, interesgarria litzateke ikertzen jarraitzea ikasleek hizkera inklusiboa bermatzeko duten joera gaur egun gazteen artean indar handia hartu duen feminismoarekin loturarik duen eta genero gramatikalaren itzulpenari dagokionez itzultzaileen belaunaldi gazteen eta helduagoen artean alde nabarmenik ote dagoen.

Azkenik, GRAL hau EHUn aurkezten denez, unibertsitateak hizkera inklusiboarekin duen harremanari buruzko ohar batzuk egin nahiko genituzke. Alde batetik, onartu beharra dago EHU hizkera inklusiboaren aldeko erakunde bat dela, eta hori sustatzen saiatzen dela; izan ere, webgunean nahiz gestio administratiboetan erabilitako materialek hizkera inklusiboa bermatzen dute, eta gainera, lan honen atal teorikoan aipatu diren gida eta testuak argitaratu dituzte. Hala ere, kezkarria iruditu zaigu hizkuntzaren bilakaerarekin horren lotuak dauden graduatan hizkera inklusiboa behar bezain beste ez lantzea. Ikasleek erantzundako inkestei erreparatuz, argi geratzen da ez dutela informazio nahikorik ezagutzen hizkera inklusiboaren gaiari dagokionez euskaraz, eta irakasle batzuek klase gutxi batzuk gaia lantzeko eskaini arren, ez da nahikoa ikasleak ohartzeko itzulpen bakoitzean duten erantzukizunaz. Horregatik, uste dugu EHUK hizkera inklusiboari buruz argitaratu dituen gidei garrantzi handiagoa eman beharko liekeela, eta gaia lantzeko bitarteko gehiago eskaini beharko lituzkeela, bereziki hizkuntzekin lan egiten den graduatan.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- Apodaka, Mariaje. *UPV/EHU-n euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gida*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Arrizabalaga, Bakartxo (2007). Itzulpena eta feminismoa. *Senez*, 32: 81-95.
- Arrizabalaga, Bakartxo (2018). Itzulpena eta feminismoa. Hamar urte eta gero, zer? *Hegats*, 56: 38-43.
- Barquín, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.
- Castro, Olga (2008). Género y traducción: elementos discursivos para una reescritura feminista. *Lectora*, 14: 285-301.
- De Beauvoir, Simone (1949). *Bigarren sexua*. Paris: Gallimard
- Emakunde (1992). *El lenguaje instrumento de progreso*. [Kultura Seriea, 1].
- Emakunde (1998). *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.
- Emakunde (2004). *Generoaren ikuspegia komunikazioan eta irudi korporatiboan*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.
- Europako Parlamentua (2008). *Informe sobre el lenguaje no sexista en el Parlamento Europeo*. Estrasburgo.
- Fernández, June (2018). *Euskararen erabilera inklusiboa*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Irizar, Ane (2018). *Euskaratik gaztelaniarako literatura-itzulpena: «Abian» ipuinaren itzulpena eta analisisa*. (Argitaratu gabeko gradu amaierako lana). Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Jaka, Aiora (2012). *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. (Argitaratutako doktorego tesia). Euskaltzaindia, Bilbo.
- Jaka, Aiora (2013). Itzultzaileen kontzientzia feminista... ala matxista? *31 eskutik*. Hemendik eskuratua: <http://31eskutik.eizie.eus/2013/10/21/itzultzaileen-kontzientzia-feminista-ala-matxista/>



- Jakin fundazioa. *Eskafandra*. Hemendik eskuratua: <https://www.jakin.eus/liburu-bildumak/eskafandra>. [Kontsulta data: 2020/05/15].
- Katakrak. Hemendik eskuratua: <https://katakrak.net/cas/editorial/catalogo>. [Kontsulta data: 2020/05/15].
- Manterola, Elizabete (2016). Erraiak besteratzeko saiakeraz. Idazlea itzultzaileen lantegian 2014. *Senez*, 47: 83-94.
- Manterola, Elizabete (2020). La interacción entre feminismo, traducción y lengua vasca. *Transfer*, XV: 142-167.
- Murgiondo, Itziar (2018). *1990 eta 2017 bitarteko narratiba-lanen itzultzaileen azterketa genero-ikuspegitik*. (Argitaratu gabeko gradu amaierako lana). Euskal Herriko Unibertsitatea.
- NBE Emakumeak. *Genderterm*. Hemendik eskuratua: <https://www.unwomen.org/es/digital-library/genderterm>. [Kontsulta data: 2020/05/07].
- NBE Emakumeak. *NACIONES UNIDAS. Lenguaje inclusivo en cuanto al género*. Hemendik eskuratua: <https://www.un.org/es/gender-inclusive-language/index.shtml>. [Kontsulta data: 2020/05/19].
- NBE Emakumeak. *Guía para el uso de un lenguaje inclusivo al género*. [Kontsulta data: 2020/04/30].
- Papadimoulis, Dimitrios (2018). *Un lenguaje neutral en cuanto al género*. Estrasburgo: Europako Parlamentua.
- Sareinak. *Feminismo literarioak*. Hemendik eskuratua: <https://sareinak.net/>. [Kontsulta data: 2020/05/19].
- Susa literatura. *Lisipe*. Hemendik eskuratua: <http://susa-literatura.eus/bildumak/lisipe/>. [Kontsulta data: 2020/05/15].
- Susa literatura. *Munduko Poesia Kaiera*. Hemendik eskuratua: <http://susa-literatura.eus/bildumak/mpk/>. [Kontsulta data: 2020/05/15].
- Tymoczko, Maria (2007). *Enlarging Translation, Empowering Translators*. Manchester (UK) eta Kinderhook (USA): St. Jerome Publishing.

UNESCO. (1945). *Constitución de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura* (I. artikulua). Londres.

UNESCO (1989). *Guidelines on non-sexist language = pour un langage non sexiste*. Paris.

UNESCO (1999). *Recomendaciones para un uso no sexista del lenguaje*. Paris.

Ugalde, Garazi (2018). Feminismoa genuen geureganatu. *Hegats*: 56: 44-49.

## 7. ERANSKINAK

### I. ERANSKINA: atal praktikorako erabilitako itzulgaia

#### ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOKO GRADUA

##### A Hizkuntza eta B Hizkuntza

Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduan sartzeko beste hau ere erakutsi behar da: ikasleak aukeratzen duen A hizkuntzan (espainiera edo euskara) goi mailako ezagutza, eta berak hautaturiko B hizkuntzan (ingeleza edo frantsesa) maila aurreratua. Horretarako bakoitzari dagozkion gaitasun-probak gainditu beharko ditu ikasleak.

Gai dela uste duen bezainbat A eta B hizkuntzatan egin ahal izango du proba ikasleak. Hautaturiko B hizkuntzari dagokion egutegiaren arabera etorriko dira ikastegira ikasleak. B hizkuntza bat baino gehiagotako gaitasuna erakutsi nahi duenak dagozkion bi ariketetara aurkeztuko da. Proba-egunean 9:30etan ikastegiko iragarki-taulan jarriko den zerrendan zehaztuko da ikasle bakoitzak zein ordutan egin beharko duen ahozko ariketa.

##### Kalifikazioak eta gainerako prozedurak

Ariketa hauek gainditzeak ez dakar Graduan onartua izatea, eta, proba gaindituta izateaz gain, gainerako prozedura guztiak jarraitu behar dira, hala nola aurre-inskripziorakoak, hautatze-prozesukoak eta onarpenerakoak. Proba gainditu eta edozein arrazoiengatik matrikula burutzen ez duenak, ariketak errepikatu beharko ditu ondorengo ikasturteetan matrikulatu nahiko balu. Era berean, beste unibertsitate bateko sarrera proba gainditu dutenek ere unibertsitate honetako azterketa egin beharko dute.

### II. ERANSKINA: ikasleei bidalitako inkesta

<b>Datu orokorrak</b>	
Generoa	Emakumea
	Gizona
	Ez binarioa
Adina	

<b>Itzulpengintzako ikasketez</b>		
Graduko zenbatgarren mailan zaude?		
Jatorri hizkuntza gisa erabiltzen dituzunak markatu	Euskara	Gaztelania
	Frantsesa	Ingelesa
	Beste bat	
Xede hizkuntza gisa erabiltzen dituzunak markatu	Euskara	Gaztelania
	Frantsesa	Ingelesa
	Beste bat	
Zer testu mota lantzen duzu gehien?	Giza-zientziak eta humanitateak	Juridiko-ekonomikoak
	Komunikazioa, marketinga, turismoa	Tekniko-zientifikoak
	Ikus-entzunezkoak	Literatura
	Lokalizazioa	

<b>Hizkera inklusiboaz</b>		
Inoiz hausnartu al duzu hizkera inklusiboak itzulpengintzan duen paperaz?	Bai	Ez
Klasean hizkera inklusiboa nahiko landu duzula uste duzu?	Bai	Ez
Inoiz erabili al duzu hizkera inklusiboa zure itzulpenetan?	Bai	Ez
Erabili edo erabiltzen baduzu, zein testuingurutan izan edo izaten da gehien?	Giza-zientziak eta humanitateak	Juridiko-ekonomikoak
	Komunikazioa, marketinga eta turismoa	Tekniko-zientifikoak
	Literatura	Ikus-entzunezkoak
	Lokalizazioa	

EHUK gaztelaniaz eta euskaraz hizkera inklusiboa lantzeko dituen giden berri duzu?	Bai	Ez
Ezagutzen badituzu, irakasleren batek klasean aipatu ditu? Edo zure kabuz aurkitu dituzu?	Klasean	Nire kabuz
Aipatu, mesedez, hizkuntza konbinaketa bakoitzean hizkera inklusiboa bermatzeko erabiltzen duzun estrategiaren bat edo batzuk.		

### III. ERANSKINA: itzultzaile profesionali bidalitako inkesta

<b>Datu orokorrak</b>		
Generoa	Emakumea	Gizona
	Ez binarioa	
Adina		
Ikasketak	Itzulpengintza	Interpretazioa
	Hizkuntzak / filologiak	Hizkuntzalaritza
	Beste bat	
<b>Itzulpen jardueraz</b>		
Zenbat urtez egin duzu lan itzultzaile gisa?		
Lanerako jatorri hizkuntza gisa erabiltzen dituzunak markatu	Euskara	Gaztelania
	Frantsesa	Ingelesa
	Beste bat	
Lanerako xede hizkuntza gisa erabiltzen dituzunak markatu	Euskara	Gaztelania
	Frantsesa	Ingelesa
	Beste bat	
Zein da zure lan egoera?	Autonomia	
	Soldatapekoa administrazioan	
	Soldatapekoa enpresa pribatu batean	

Zer testu mota lantzen duzu gehien?	Giza-zientziak eta humanitateak	Juridiko-ekonomikoa
	Komunikazioa, marketinga eta turismoa	Tekniko zientifikoa
	Literatura	Ikus-entzunezkoak
	Lokalizazioa	

<b>Hizkera inklusiboaz</b>		
Inoiz hausnartu al duzu hizkera inklusiboak itzulpengintzan duen paperaz?	Bai	Ez
Inoiz erabili al duzu hizkera inklusiboa zure itzulpenetan?	Bai	Ez
Erabili edo erabiltzen baduzu, zein testuingurutan izan edo izaten da gehien?	Giza-zientziak eta humanitateak	Juridiko-ekonomikoak
	Komunikazioa, marketinga eta turismoa	Tekniko-zientifikoa
	Literatura	Ikus-entzunezkoak
	Lokalizazioa	
Inoiz bezeroren batek eskatu al dizu itzulpenean hizkera inklusiboa erabiltzea?	Bai	Ez

Aipatu, mesedez, hizkuntza konbinaketa bakoitzean hizkera inklusiboa bermatzeko erabiltzen duzun estrategiaren bat edo batzuk.	
--	--